

Inbertsioak erabakitzeke batzarra egingo da asteazkenean

- 300 milioi daude inbertitzeko; horietatik 260 milioi dagoeneko konprometitu.
- Batzarra, azaroaren 29an, arratsaldeko 20:00etan, udaletxean bertan.

2001eko AURREKONTU OSOA	
2.180.038.595 Pta.	
INBERTSIOAK 300.000.000	
KONPROMETITUAK **	
260.000.000	
	Pta.
Liburutegiko ekipamendua	9.000.000
Alde zaharra beritu (2.fasea)	120.000.000
Ikerketak eta proiektuak	10.000.000
Errepide, auzobide eta kaleak asfaltatzea	25.000.000
Basarri bideak konpontzea	40.000.000
Industrialdeko kapitala gehitzea	49.000.000
Obretako lan taldearentzat mat. eta ekipam.	900.000
Hondakinelarako kontenedoreak	1.500.000
Mañe i Flaquerreko 'alkantaria' berritzea	1.500.000
BATZARREAN EZTABAIDATZEKO	
40.000.000	
Lehentasunak:	
Txiringa eta motoentzat aparkalekuak	*
Urumea, aisialdirako prestatzea: fase bat	20.000.000
Trenbide azpiko pasabideak zabaldu	*
Purinak tratatzeko makina	1.200.000
Etxebizitza publikoak	*
Karabelgo argia eta espaloia	9.000.000
Sorgintxuloko desaguea	*
Albergea Arriatsun	20.000.000
Rokodromoa	1.000.000
Pana parkeko goi aldea egokitu eta apeaderotik gorako bidea txukundu	15.000.000
Hernaniko irudia landu (Ikerketa)	*
Baserrien argitalpena eta seinalizazioa	5.000.000
Kiroldegian inbertsioa: piszina ingurua txukundu	*
Euskalgintzarako, eskaerak kontuan izanda	*
Kulturari: hitzartua + keramikarako labea	900.000

UDAL aurrekontuari buruzko eztabaida iritsi da azken fase-ra. Datorren asteazkeneko batzarra erabakiko du Hernanin, hurrengo urtean, zein inbertsio egingo diren.

300 MILIOI

Horixe dago gastatzeko. Diru hori da ia 2.200 milioiko aurrekontuari gastu arrunta (soldatak, zerbitzuak, Patronatuak...) kendu, udala % 10ean zorpetu eta sobratu dena.

15 PROIEKTU, 40 MILIOI

Ezusteke haundirik ezean, batzarrean 40 milioi zertan inbertitu eztabaidatuko da. Gainerako 260ak lotuta daude, sektoreka egin diren bileretan ere onartu baitira diru hori jasoko duten 9 proiektuak. Batzarrean aukeratu beharreko beste 15 proiektu edo partidek, ordea, 150 milioitik gorako aurrekontua dute. Halere, eskaera batzuek ez dute aurrekontu zehatzik, eta litekeena da horiek datorren urterako uztea, aurretik aztertu behar direlako.

BATZARRETIK PLENORA

Datorren asteazkeneko batzarrean erabakitzen dena erabakitzen dela, hango hitza plenera joango da zuzenean, eta han onartuko dira 2001 urteko aurrekontuak. □

* Proiektu horiek ez dute oraindik aurrekontu zehatzik. ** Konprometituak egoteak ez du esan nahi diru partidak alda ez litezkenik, batzarra hala erabakitzen bada.

Andra Mari Mirarigilearen Bederatziurrena eta Hirurrena gaur bukatuko dira meza banarekin

- Milagrosa eguna ospatuko da
- Mezak: Sandiusterrin 12:00etan, eta Parrokian 19:00etan

AZAROAREN 27an, Milagrosa egunak emango die bukaera Bederatziurren eta Hirurren ospakizunei.

Sandiusterriko Milagrosa kapilan izango da meza bat eguerdian. Arratsaldean, berriz, Juan Bataiatzailearen Parrokian; Imanol Aldaregian jaunak emango du meza. □



Parrokiko koroak kantatu zuen atzo Meza Nagusian

Bikote Dantza Lehiaketa gazteentzat igandean

- 14 urtez azpikoentzat da
- Plaza Berrin ateri bada, bestela, Sandiusterrin
- 'Kriskitinak' antolatu du.

EGUERDIKO 12:00etan hasita, gazteentzako Bikote Dantza Txapelketa izango du gu Hernanin. Denera, 16 herrietatik datoz dantzari bikoteak: Arama, Asteasu, Azkoitia, Azpeitia, Bergara, Donostia, Ibarra, Lezo, Olabarra, Orereta, Urnieta eta Hernani dira Gipuzkoatik izango

direnak. Bizkaitik hiru datoz: Leioa, Sestao eta Urduliz. Nafarroatik bat: Lesaka. Arabarrak ekartzen ere eginahalak egin bai, baina, dantzari ez.

ESKERRAK

Kriskitina Dantza Taldeak eskerrak ematen dizkie diruz lagundu dieten guztiei. □

TXANTXANGORRI ELKARTEA

Aurtengo Ehiza Txapelketa abenduaren 10 eta 17an

- Epelerreka eta Uxokoerrekan jokatu da
- Izena emateko, soziedadean bertan, abenduaren 7rako.

FAISANA, oilagorra eta epera dira Ehiza Txapelketan bota litzazketen piztiak: faisana bakoitza 100 puntu; epera 102 eta oilagorra 105. Bi igandeetan puntuaziorik altuena ateratzen duenak irabaziko du. Sariak: aurrenengoarentzat txapela; gero, parte hartzaile guztien artean zozketa egingo da, 20.000 Ptako 'balea' bi kototan erabiltzeko.

ARAUK

Hauexek dira Txapelketako arau nagusiak: 1) Bederatzi-tarako kontrolean; 2) Ehizarako denbora, 10:00-13:30; 3) Ehiztari bakoitzak epaile bat eta txakurra eramango ditu; 4) Gehienez bi tiro, aldiko; 5) Enpate kasuan, aurrena ekarri duenak irabaziko du; 6) Botatoko ehiza, antolatzaileen esku geldituko da. □

MENDIRIZ-MENDI

Ollo-Beriain (1494 m)-Unanua datorren igandean

- Izena emateko: astelehen, ostegun eta ostiralean, 20:00-21:00
- ☎ 943-33274
- Bazkideek: 1200 Pta; besteek 1500.

AEK-REN KONTRAKO AUTO JUDIZIALA

Bihar asanblada Sandiusterrin

- Garzonen autoa dela-eta, egoera esplikatuko eta zer egin eztabaidatuko da
- 20:00etan.

IPIUIN KONTAKETA HAURRENTZAT

Ostegunean, liburutegian

- I. Zubizarreta kontalaria izango da
- 17:30etan txiki-entzatzat eta 18:00etan besteentzatzat.

Skoda Octavia. Bizitza osoa



OCTAVIA bat 1.995.000 ptatik.* (11.990,19 euro*)
*Penintsula eta Balearretako gomendatutako prezioa Skoda Octavia 16V Classic Garraio eta zergak barne. 1 euro=166,386 pta.

MENABI

Txingurri pasealekua, 26 Herrera auzoa DONOSTIA Tel. 943-40 42 43

XALAPARTAKO SAGARDO LEHIAKETA

Altzueta txapelkun eta Alberro bigarren

■ 1352 puntu atera zituen Altzuetak; 1278 Alberrok eta 1276.5 Eizmendik ■ Xalaparta elkarte lepo bete zen.



Xalapartako lehiaketan egon ziren sagardogileak.

XALAPARTAKO Sagardo Lehiaketan afaldu zutenek Altzuetako sagardoa jarri zuten besteen gainera. Alberro, Eizmendi, Oiarbide, Eula, Otsuenea, Akarregi, Elorrabi, Zelaia eta Elutxeta izan ziren beste bederatzia. Afaria: baikailoa saltsa berdean, txuleta, gazta eta intxaurrak, eta kafe konpletoa. Berriz joateko ere gustora atera ziren. □



Altzueta

“Hurrengo urtean ere konforme nitza-ke, aurtengoa beze-lako sagardoa atera ezkeroz”

LEHIAKETA

BA AL DAKIZU NON DAGOEN?



- **Erantzunak:** *Kronikako* buzoian utzi: Larramendi 11, behea. Izen-abizenak eta telefonoa jarri.
- **Epea:** astebete.
- **Aurreko astekoa:** Argutze. Onddi mendian azpian.
- **Asmatu dutenak:** Joxe M^a Zelarain, *Putre*, Marian Apezetxea, Asier Larrañaga eta Leyre Larrañaga.
- **Saria:** *Venta Berri* jatetxean bi lagunentzako afaria eta *Kronikaren* urteko bilduma (urte bukaera bitartean gehien asmatzen dituenak).

-----KIROLAK-----

■ 3. MAILAKO FUTBOL LIGA

Baskoniak 5 - Hernanik 1

■ Berriz ere behera doazti, partidu segidan galduta.

ZURiberdeek ez daramakite oso bolada fina. Aurrekoan Zubipetik bezalaxe, belarriak makurtuta etorri behar Bizkaitik, basauriarrek 5 gol sar-

tuta. Sailkapenean, Baskoniak adina puntu ditu orain. Datorren astean, berriz ere bizkaitarren kontra: Lemoa etorriko da Zubipera. □

■ WATERPOLOA

UPNAK 5 - Hernanik 11

■ Nafarrak errez menderatu dituzte ■ Euskal Herriko Ligako lider da 18 punturekin ■ Datorren asteburuan ez du partidurik.

■ ESKUBALOIA

Baskoniak 19 Hernanik 19

■ Ez zuten partidu ona jokatu. Huts asko eginda ere, enpatatu.

■ BOLEIBOLA

Hernanik 3 Rekaldek 1

■ Errez irabazi eta lider jarraitzen dute.

KRONIKA PELOTA TXAPELKETA

Tutu eta Iturbe aurrena

■ Ion eta Davidek ere partidu guztiak irabazi dituzte.



SAILKAPENA

- 1-Tutu-Iturbe-----10p
- 2-Joxe-Zelaia-----9
- 3-Legarreta-Gorka---9
- 4-Magi-Txili-----7
- 5-Ion-David-----6
- 6-Juanjo-Tani-----6
- 7-Angel-Iñaki-----6
- 8-Iker-Josu-----5
- 9-Aitzol-Aimar-----4
- 10-Axier-Eneko-----4
- 11-Itxaso-Xapo-----3
- 12-Leitza-Juanmari--3

* 8, 9, 10 eta 11 garrenek partidu bat gutxiago. 5 eta 11 garrenek 2.
** Partidu irabazia ...2 p. Galdua..... 1 Ez azaltzea..... 0
*** Aurreko igande arteko emaitza.

Ezkerretik: Gorka-Legarreta eta Zelaia-Aritz. Aranoarrek hura paliza!

■ PELOTA

Jon Zabala-Argote Gipuzkoako Txapelketan eta Egiako torneo semifinaletan. Egiako Torneo partidua bihar jokatuko du eta Gipuzkoako Txapelketakoa asteburuan. □

HERIOTZAK

Julio Castro Fernandez

Igandean hil zen 56 urte zituela.

Hileta elizkizuna gaur, astelehena, arratsaldeko 18:00etan Juan Bataiatzailearen Parrokian.

ASTEBURUKO EMAITZAK

■ FUTBOLA <u>3. maila:</u> (Mutilak) Baskonia 5-Hernani 1 <u>Emakumezkoen liga:</u> Usurbil 2 - Hernani 3 <u>Gorengoen maila:</u> (mutilak) Hernani 0 -Zestoa 1 <u>Gazteen liga nazionala:</u> Union Txiki 2 -Hernani 3 <u>Gazteen Ohorezko liga:</u> Hernani 1 -Aldapetarrak 2 <u>Gazteen 2. maila</u> Hernani 0 -Ostadar 5 <u>Kadeteen Ohorezko liga:</u> Lagun Onak 3 - Hernani 1 <u>Kadeteen 2.maila</u> Hernani 4 -Beasain 0	<u>Haurren Ohorezko liga</u> Hernani 2 - Aitzgorri 0 ■ ERUGUBIA <u>2 Euskal liga (Mutilak):</u> Hernani 21 -Sestao 30 <u>Jubenilak Euskal liga:</u> Elorrio 5 -Hernani 34 <u>Kadeteak Gipuzkoako liga</u> Berar Bera 0 - Hernani 67 <u>Infantilak</u> Hernani 30 - Atlet. SS 0 Hernani 20 - Arrasate 0 Hernani 25- Ordizia 5 ■ BOLEIBOLA <u>Euskadiko liga</u> UPV Hernani 3 CV Rekalde 1	<u>Gipuzk. liga (Kadete Neskak)</u> Langile Hernani 3 Landaberri Lasarte 0 <u>Gipuzk. liga (Kadete Neskak)</u> Urumea Hernani 0 Ernioeba Billabona 3 ■ WATERPOLOA <u>Euskal Herriko 2. Maila I</u> UPNA 4 - Hernani 11 ■ ESKUBALOIA <u>2. Nazionala</u> San Adrian 19 -Hernani 19 PELOTA <u>Eskuz binaka profesionalak</u>	Oiaga-Oregi 17 Legorburu-Bazeta 22 <u>2. mailako lauterdi txapelketa:</u> Galartza V 22- ESNAL 15 <u>ETB-DV Torneo</u> Baleztena-Huarte 22 Zabala-Jauregi 10 <u>Paleta Goma Gipuzkoako Txap.</u> E.Lasa-A.Martinez 30 Itxaso-Etxabe 15 <u>Kronika Eskupilota liga</u> Gorka-Arano 22 Aritz-Zelaia 8
--	--	--	---

JASOTA BEZALA

Aupa Hernani. txe boludos!!
 Argentinako Puerto Madryn hiritik bidaltzen dizuet email hau. *Etzakit* taldekook Argentinara etorri gera kontzertu batzuen aitzakian atsedendaldi bat hartzeko.

Lehenengo astean Nekotxea izeneko hirian egon gera eta bertako *Euskal Etxean* hiru kontzertu eman ditugu. Ez dezue imajinatzen zer nolako harrera egin ziguten, bertako euskaldunek: aste guztian etorri

ziren Argentina guztiko euskal delegazioak. Benetan ez da pentsatzen zenbat euskaldun dagoen herri honetan. Bigarren aste honetan, Patagonia aldera jeitsi gera; baleak, itsas elefante eta otsoak, pinguinoak eta beste hainbat animalia ikustera.

Munduko alde honetan udara hastera dijoa eta eguraldi aldetik ezin dugu kejaratu, pentsatu ezker zuek negu aldean sartuta zaudetela. Egia esan, izugarri ondo pasatzen ari gera:

ezagutu degun jende pila, egin ditugun afari eta parrandekin eta batez ere Nekotxeako euskaldunekin egin dugun harremanekin... agurtzerakoan malkoak eta guzti egon ziren

Besterik gabe agur berezi bat Anderri, ezin izan duelako taldearekin etorri, baita ere Ereñotzuko eta *Kronikako* lagun guztiei; laister ikusiko gera.

JON MARI BEASAIN

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK Taxiak: 943 550093 Udaltzaingoa: 943 333288 DYA: 943 464622 Anbulatorioa: 943 557750	☎ FARMAZIAK Egunez: Irigoien Elcano 2 ☎ 943552087 Gaez: Zatarain Andoain, Arteta s/n ☎ 943590802 ☎ ASTEARTEA Egunez: Gomez-Justel Kale Nagusia, 15	☎ 943 554892 Gaez: Ansa Andoain, G. Ondarreta ☎ 943 591302 ☎ ASTEAZKENA Egunez: Sagasti Urbietta 7 ☎ 943 552941 Gaez: Arzallus Andoain, Plazaola 17 ☎ 943 591514
--	--	---

IRAGARKI MERKEAK

■ Neska bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko.

☎ 943.557190